

FUNTSEZKO JARDUERAK

Proiektu denak aurrera ateratzeko eta funtzionatzeko hainbat gauza ondo irten behar dira, eta gure proiektua ez da salbuespen bat. Jarduera horiek ondorengo hauek dira: ekoizpena, arazoak konpontzea eta plataforma edo sare-jarduerak.

Gure proiektua aplikazio bat denez, oso garrantzitsua da plataforma ondo eginda egotea. Bestela arazo asko edukiko ditugu behin aplikazioa plazaratu eta gero. Argi dago beti izango ditugula arazo txikiak baina horiek konpontzeko gai izan behar gara. Hori da gure proiektua arrakastatsua izateko gakoa.



Gure proiektuak funtzionatzeko ere aldagai asko izan behar ditugu kontuan. Agian leku baten beste baten baino arrakasta gehiago edukitzen du eta hori ez dago gure esku. Modak bezala, leku batzuetan beste batzuetan baino gehiago funtzionatzen dute. Baina gure helburua ez da gure proiektua moda bat izatea, baizik eta phoneblock-ek denboran luze irautea.

Eta hau guztiaz gain, proiektuak funtzionatzeko pauso garrantzitsu bat publizitatea da. Proiektua erakargarria izan behar da erabiltzaileposibleentzat. deigarria izan behar da. Ahalik eta leku gehienetan gure iragarkiak ikusi behar dira, sare sozialetan...